

ENRIKE ZUBIRI, zenbait urte Iruñe-an illa, ongi ezaguna da irakurle euskaldunen artean: bere kontu eta irakurgaiak «Manez-aundi» izenordearen azpian eskutatzen zituen. Bere euskera Nafarro-koa da; Luzalde-arra. Garazi Be-Nafarrokoa auzoa: orrengatik izkera iparreldakoa du osoki. Baina ala ere, gustagarri da emengo-en artean ere, mintzaira zorrotza, ausarta eta edera baitu. Artista pintazalea zen, eta ala da izkiribaizen ere; ongi ekartzen ditu paperera itzalak eta argiak; eglazki errikoen artean zaudela ematen du. Garbia ba da ere, ez billatu or alabainan itz berri asmatuak; denak er rikoak dituzu, erriko usain gozokoak, eta elkarrekin airoski jositakoak.

AFARIAREN ONDOKOA

Gilen eiarazaina eskontzen zen. Beti danik ezkontzaren etsaia izanikan ere, zorbait aldiz igurikatzen ez dena gertatzen bai-ta, horra non gure donado burukoia berrogei urtetan debru neshkato polit batek bihotzia guritzen dakon. Eta nola! arrunt shoratua ezarri artio, haren gogotik neholere ezin baztertuz Maittipi-ren begitarte liluragarria.

Poshiño bat ahalgetzen zen adishkideen aitzinean berari iduri zitzaikon ahulkeriaz, ustez eta haren gizontasuna aphaltzen zela. Baina biotzaren deiari nola ihardoki, nola bihurri?

Gilenek nahi zuen bere donadogoko azken eguna ohoratu, eta oldoztu zuen adishkide mineneeri afari nasai baten emaita. Goizian eiharako nazan bizpahiru pertoletatik alchatu zituen arrain larri eder batzue atseko oturuntzarendako.

Ostatuan aphaindu zakoten ditaken aphairurik ederrena.

Arrainkiak, cherrikiak, ollakiak eta errakiak ausarki. Gauaz leher eta zapart egiteko yaki pizuenak: baina zoazi tetelekeria horiekin zola gabeko sabeleri! Zahagi ardo gorriño bat ere han zuten aitzinetik ekharria, eta hauta, gero: ez nolanhikoa.

Denak mahain luze bathean lerrokatu ondoan hasten dira klika lehiatsuarekin yakien iresten eta ahamenak badoazi barnerat zalu-kara, ardoz ihintztatuak, erreshkiago lerra ditzen zintzurrian.

Afaria aitzinatzen den arau elhausturia ere badario ezpainetatik kalaka haundian eta azkenian errakiaren ondolik ikhustekoa zen harrabots eta zalapartan zabiltzan oihu, irri, ishtorio pipher-dun, karkaila urragarrietan.

Kalapita hortan zirelarik sartzen da Frantses bat, tresna batzuekin besapian, eta erraiten du: «Pardon Messieurs, le photographe veut vous faire un portrait».

To, Gilen, erraiten dakote adishkideek, arras huntza zaizkiuk hori. Izain diauk gau huntako oroitzapen bat.

Frantsesak hedatzen ditu bere tresnak eta hok landatu ondoan ohartzen dira nola heien gaiñean ezartzen dituen gathuluño batian herrauts batzu.

Zertako othe dira herrauts horiek? —Nik dakita, dio Gilenek.

Etzakiten bathere, zozok, gauaz lan hori egiteko bear zela argi bizi-bizi bat, magnesium deitzen dena.

Anartean frantsesa etsitua zen yende hura etzaitekela kotz geldirik egonarazi. Denek nahi zuten atherarazi ichura bichienetan. Azkenian Gilen lau hazkan, astoaren gisan ezarri zen, eta haren gaiñian zaldizko adishkide bat, baso bat arno eskuan gaineraino betia, besoa alchaturik.

Orduan sartzen da ostatuko nausia eta boz lodi larderiatu batekin oihu egiten du. «Alo, debru erhoak, nai duzea ishilik eta geldirik egon? Isho...! Baziztea?» —Baaaa!! ihardesten dute guziek batian.

Iduri-atheratzaileak su emaiten du herrautsari, eta... bumm...!! Nola erran han gerthatu zena? Ihortziri bat erori bazen ere etzuen izidura haundiagorik sarraraziko gizon heien bihotzetan. Itsutuak, eta erdi ithoak, khe lodi madarikatu batek zintzurrari behiti yuanik denak ez tul-zalapartan zauzkan, hatsa ezin hartuz.

Ba eta gehiago dena, norbaitek gaishtakeriaz eta trufaz argi elektrika itzali zuen, eta han zauden illhun beltzian, athea ezin achemanez. Azkenian, ithotzeko pundian ardietsi zuten idekitzea.

Izigarriko kalapita hartan Gilenen gaiñian zenak hunen burian ishuri zuen basoko ardoa. Zonbait ere aldi-chartu ziren, denak nahasiak khe tzar haren ganik, eta ez tul zalaparta haren ondorioz gohaindika eta okhaka gehienak kanpoan ustu zituzten sabelak...

Frantsesak, ichura charreko harramantza hura ikhusi zuelarik lekiak hustu zituen zalhukara, bere saria galdegin gabe.

Arras trenpe charrian Gilen ohatu zen, eta sendagileak debekatu zakon yaikitzea bizpaïru egunez, sendagailu bat emanik barnea untsa garbitzeko.

Bere ezteia gibelatu zen, beraz, zonbait egunez.

Debrien arima! urde kaskoin tzar hura ene eskien artean banu, itho nezakek, to, erraiten zakon adishkide bati Gilenek.

Burian-buruan; pundian-ponduan; ardietsi-lortu; lekiak-lekuak; untsaongi; Gilen eyezaina-Guillermo el molinero, Burukoia-testarudo. Ahulkeria-debilidad. Pertola-botrino. Tetelekeria-boberia. Zola-fondo. Klika-apatito devorador. Ahamenak-bocados. Elhausturia-verboreta. Lau azkan-a cuatro pezuñas. Ihortziri-rayo, Gohaindi-nausea. Harramantza-estrépito. Ohatu-encamar. Igurikatu-esperar. Aphaïru-comida en general. Donadosoltero. Guritzen dakon (dion)-le ablanda; artio-arte; nehelere-ñola ere; maittipi-mariquita; igurikatzen-esperatzen; begitarte-aurpegi; poshiño-un poquitin; aitzinean-aurrean; iardokiresistir, combatir; Donadogo-ko-de solteria; nazan-en la acequia; atse-ko-arrats-eko; aursarki-abundante; yaki-janari; mahaiu-mai; harrabols-ruido; karkailla-carcajada; gatuluño-katilucho; herrauts-auts; arno-ardo; eskian-eskuan; ordian-orduan; hatsa-arnasa.